

XEDAPEN OROKORRAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

6165

AGINDUA, 2021eko azaroaren 24koa, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoaren barruan automobiletan egiten den bidaiarien herriz kanpoko garraio publikoaren tarifen zenbait osagaien prezioak aldatu egin direnez, indarrean dauden tarifak ere igotzea komeni da.

Ondorioz, Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 11/2021 Dekretuaren 4.1 artikulua ematen didan eskumena erabiliz, eta bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo automobilerik garraiatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 3. eta 17. artikulua kontuan izanik, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Gidaria barne dela hamar plaza baino gutxiago eta VT motako garraio-baimena duten automobiletan egindako bidaiarien herriz kanpoko garraio publikorako gehieneko tarifa hauek baimentzea, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne dela:

III. tarifa: egunekoa (07:00etatik 22:00etara)

	Euro
- Kilometroko	0,685876
- Itxaronaldia, orduko	18,83
- Gutxienekoa (1)	6,44

(1) Gutxieneko horrek 1.500 metroko ibilbidea hartzen du.

IV. tarifa: jaiegunetakoa eta gauekoa (22:00etatik 07:00etara)

	Euro
- Kilometroko	0,758498
- Itxaronaldia, orduko	19,80
- Gutxienekoa (1)	7,08

(2) Gutxieneko horrek 1.500 metroko ibilbidea hartzen du.

2. artikulua.– Agindu honen 1. artikuluan adierazitako gehieneko tarifak ez dira aplikatuko gidari-zerbitzua barne dela alokatutako ibilgailuekin errepidez egiten diren herriz kanpoko garraio publikoetan.

3. artikulua.– Zerbitzu bat kontratatzeak ibilgailu osoa alokatzea ekarriko du, eta zerbitzutat, kontrakorik berariaz hitzartu ezean, ibilbide motzena hartuta abiapunturainoko zirkuitu itxia joko da.

Ordainpeko bide-azpiegitura bat erabiliz gero, helmugara iristeko ibilbideko bidesaria erabiltzai-leak ordainduko du.

4. artikulua.– Lehenengo artikuluan jasotako tarifak taximetroak ezarritakoaren arabera kobratu beharko dira, ekainaren 29ko 2/2000 Legearen 17. artikuluan, urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren bidez onarturiko 2/2000 Legearen Erregelamenduaren 32. artikuluan, eta Garraio eta Herri Lane-tako sailburuaren 1990eko urriaren 10eko Aginduan xedatutakoari jarraituz, aipatu araudi horretan ezarritako salbuespenekin.

Taximetroa, urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren bidez onarturiko 2/2000 Legearen Erregela-menduaren 44. artikulua ezarritakoaren arabera jarriko da martxan.

Urriaren 15eko 243/2002 Dekretuaren 4.h) eta 32.1 artikuluetan xedatutakoa kontuan izanik, taxi-gidariek kasuan kasuko ordainagiria egin beharko dute horretarako jarria izango duten gailua erabiliz.

5. artikulua.– Baimena ematen da, tarifa aldatzeko ordua edo eguna iristen denean, III. tarifatik IV. tarifara, edo alderantziz, automatikoki aldatzen diren taximetroak erabiltzeko.

6. artikulua.– Agindu honen 1. artikuluan ezarritako IV. tarifa aplikatzeko, jaieguntzat hartuko dira igandeak eta Autonomia Erkidegoko eta Tokiko araudiaren arabera jaiegun direnak, bai eta larunbatak eta abenduaren 24a eta 31.

7. artikulua.– Agindu honetan xedatutakoa betetzen ez bada, ekainaren 29ko 2/2000 legean ezarritakoaren arabera zigorrak jarriko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetu egiten da Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuaren 2019ko otsai-laren 20ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoan turismo automobiletan egiten den bidaiarien hiriarteko garraio publikoaren tarifa berriak onartzeko dena.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Baimena ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioako Garraio Plangintzaren zuzendariari agindu hau garatzeko xedapenak emateko.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra agindu honek.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 24a.

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburua,
IGNACIO MARÍA ARRIOLA LÓPEZ.